

## **2000KO OTSAILAREN 16AN, GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Hamaseia

**HILABETEA:** Otsaila

**URTEA:** Bi mila

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko bederatzia laurdengutxi

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hiru (4)

**MAHAIBURUA:** Jon Jauregi Bereziartua

**BILDUAK:** Arantza Aseginolaza Azkargorta

Andoni Antxia Etxebarria

**ETORRI GABEA:** Josi Insausti Mujika

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

### **1- AURREKO AKTA**

1999ko azaroaren 18ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da inolako aldaketarik aurkeztu ez delako.

### **2- ZIURTAGIRIAK**

10.000 pezeta baino gutxiagoak direlako, obra-ziurtagiri hauen berri eman da:

- Navarro Larreategi kaleko espaloien obrari buruzko likidazioa. 1.474.285 pezeta.
- Hainbat espaloietako obrei buruzko likidazioa. 9.920.155 pezeta.
- Hilobien birmoldaketa lanei buruzko ziurtagiria. 7.041.609 pezeta.
- Oria ibaia bideratzeari buruzko 11. Ziurtagiria. 7.771.761 pezeta.
- Oria ibaia bideratzeari buruzko 12. Ziurtagiria. 1.875.186 pezeta.
- Oria ibaia bideratzeari buruzko 13. Ziurtagiria. 1.301.381 pezeta.
- San Andres ermitari buruzko lehenengo ziurtagiria. 3.684.471 pezeta.

### **3- LEHEN ERABILERA KO BAIMENAK**

a- Telleri baserria.

Kontuan izanik, Juan Jose Lasa Garmendia jaunak egindako eskaera Telleri baserriari lehen okupaziorako baimena emateko eta ikusirik hirigintza

batzordeko aldeko txostena, aho batez onartu da, aipatutako eraikinari lehen okupazioarako baimena ematea.

b- Antzinako Urteaga hotelaren eraikina.

Kontuan izanik, Jose Dravasa jaunak egindako eskaera antzinako Urteaga hotelaren eraikinean egindako obrei lehen okupaziorako baimena emateko eta ikusirik hirigintza batzordeko aldeko txostena, aho batez onartu da, aipatutako eraikinean egindako obrei lehen okupazioarako baimena ematea.

c- Orueta baserria.

Kontuan izanik, Marcos Alustiza Biain jaunak egindako eskaera Astigarretako Orueta baserriari lehen okupaziorako baimena emateko eta ikusirik hirigintza batzordeko aldeko txostena, aho batez onartu da, aipatutako eraikinari lehen okupazioarako baimena ematea.

**4- IZENDEGIA**

Hirigintza Batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez onartu da gaur egun eraikitzen ari diren etxebizitzetara zenbaki hauek ematea:

..... **Lehenko Urteaga Hotelari:**  
..... **GARMENDIA OTAOLA, 2**

**Indarreko txaleta zen lekuko etxe-atari berriei:**

..... **NABARRO LARREATEGI, 9-11-13**  
..... **ZAPATARI KALEA, 2**  
..... **NAFARROA ETORBIDEA, 53**

**Garin-eneko guneari: .....**

..... **ERAUSKIN KALEA, 10 (etxe bakarrari)**  
..... **ERAUSKIN KALEA, 12tik 52era biak barne (erantsitako etxeei)**  
..... **ANDRE MARI KALEA, 21(etxe bakarrari)**  
..... **ANDRE MARI KALEA, 23tik 51ra biak barne (erantsitako etxeei)**  
..... **ANDRE MARI KALEA, 53 (etxe bakarrari)**

**Gantzaraindaren etxeari zenbakia aldatuko zaio eta 55 zenbakia izango du (lehen 23 zuen)**

**Lehengo Auzmendi tailerraren lekuan eraikiari: ZELAETA KALEA, 2**

**Azpeitia familiaren enpresa zen guneari: NAFARROA ETORBIDEA, 6tik  
20ra biak barne.**

..... **MENDEURREN ETORBIDEA, 2A**

**Ezkiagan egiten ari diren etxe berriari: ORIAKO PASEALEKUA, 14**

**Txarako Industrialdeari..... ALTAMIRA AUZOA, 5**

**Irigoiengo Industrialdeari..... GUDUGARRETA AUZOA, 13**

**Isabel Imazen etxe berriari..... UGARTEMENDI AUZOA, 8**

**Odriozolaren etxe berriari..... SALBATORE AUZOA, 21**

**Telleri baserri berriari: ..... ERREKARTE KALEA, 24A - 24B**

## **5- HITZARMENAK**

### **a- Porteria auzo elkarteak.**

Porteria auzo elkartearekin izenpetzeko hitzarmenaren zehastasunen berri eman da eta ondorengo iharduerei dagokienean eman ere:

- San Pedro Jaia	175.000 pezeta
- Nafar joten jaialdia	250.000 pezeta
GUZTIRA .....	425.000 pezeta

Bozketa eginda, aho batez onartu da, 2000ko aurrekontua onartzearen baitan.

### **b- Ostadar dantza taldea**

Ostadar dantza taldearekin izenpetzeko hitzarmenaren zehastasunen berri eman da eta ondorengo iharduerei dagokienean eman ere:

- lhauteriak	120.000 pezeta
- Loinatz Jaiak	250.000 pezeta
- Zortziko (San Juan)	Megafonia eta Txistulariak
- Suelto txapelketa	330.000 pezeta
- Ator Ator	
- Euskal dantzen jaialdia (eguberri inguruan)	65.000 pezeta
GUZTIRA .....	705.000 pezeta

Bozketa eginda, aho batez onartu da, 2000ko aurrekontua onartzearen baitan.

c- Argizpi argazkizale elkarte.

Argizpi argazkizale elkartearekin izenpetzeko hitzarmenaren zehastasunen berri eman da eta ondorengo iharduerei dagokienean eman ere:

- Argazki lehiaketa	200.000 pezeta
- Argazki rallya	100.000 pezeta
- Ikastaroa (50 ordu)	100.000 pezeta
- Argazki erakusketa	40.000 pezeta
- Argazkiak ateratzea	25.000 pezeta
- Mendiko gaiei buruzko argazki lehiaketa	115.000 pezeta

GUZTIRA.....580.000 pezeta

Bozketa eginda, aho batez onartu da, 2000ko aurrekontua onartzearen baitan.

d- Aizkorri mendizale elkarte.

Aizkorri mendizale elkartearekin izenpetzeko hitzarmenaren zehastasunen berri eman da eta ondorengo iharduerei dagokienean eman ere:

- 28 kultur eta kirol-arloko irteerak	733.000 pezeta
---------------------------------------	----------------

Bozketa eginda, aho batez onartu da, 2000ko aurrekontua onartzearen baitan.

e- Arrano kultur elkarte.

Arrano kultur elkartearekin izenpetzeko hitzarmenaren zehastasunen berri eman da eta ondorengo iharduerei dagokienean eman ere:

- Sendabelarren erakusketa	42.000 pezeta
- Mariren jetsiera	175.000 pezeta
- Euskal jai eguna	1.335.000 pezeta
- Pintura lehiaketa	411.000 pezeta

Bozketa eginda, aho batez onartu da, 2000ko aurrekontua onartzearen baitan.

**6- ITOLA BASERRIA**

Ezagutzera eman da German Herrador de la Rosa jaunak aurkeztutako alegazioa ondorengo esanez:

Itola baserrian untxiak hazitzen ditu eta erabiltzen duen tokia garbitasun baldintza honetan mantentzen du.

Aspalditxotik langabezian dago eta baserria uzteak kalte handia eragingo lioke.

Oraingo egoeran jarraitzea interesatuko litzaioke eta bestela alokairu kontratua sinatzeko prest egongo litzateke.”

Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki hau hartzen da:

German Herrador de la Rosa jaunari adieraztea, Itola baserria erabiltzen uzten zaiola, baina baldintza hauek bete behar dituela:

Baserriaren ondoan daduen bi ibilgailuak arbastura eramateko.  
Baserriaren atzekaldean eta inguruan daduen sasiak garbitzeko.  
Baratzak ixteko mailadun sarea jartzeko.

Baldintza hauek betetzeko hilabeteko epea ematen zaio. Epe horretan agindutakoa betetzen ez badu hartutako erabakia berraztertu egingo da.

## **7- ESKAERAK ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ondorengoak aurkeztu dira:

### **EUROAREN EGUNA**

Alkate jaunak informazio gisa ezagutzera eman du “Jolas” taldeak aurkeztutako txostena eta proposamena, Beasainen “Euroaren eguna” ospatzeko eta horren ondorioz bizilagunei jakinarazteko euroari buruzko xehetasunak.

Arantxa Aseginolaza (EAJ-EA/PNV) kultura batzordeko lehendakariak esan du gaia ondo aztertu behar dela, orain arte ere euroari buruzko kanpainak egin direlako eta ez delako komenigarria errepikatzea.

Horren ondorioz, gaia kultura arlokoek aztertzekotan gelditu da.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.